

iruner

186. zenbakia. 2010eko iraila



Adiskidetuak
Elkartea:
etorkinen
integrazio osoa
helburu



Erroibide
Saskibaloia
Klubeko mutilek
1go mailan
jokatuko dute



Seme-alabak etxean
hezten dituen familia
irundarra

Zer egin behar da Gipuzkoa TB Txingudi
LTDz ikusi ahal izateko?

29. KANALEAN sintonizatu. Kanal horretan seinalerik jasotzen ez baduzu, jar zaitez harremanetan antena instalatzailearen batekin.



Irunen, zuk Euskaraz!



Herri-Jakintza

E U S K A L T E G I A

HABE: Titulu Ofizialak
Autoikasuntza

HABE: Título Oficial
Autoaprendizaje

*Euskalduntzen

*Alfabetatzen

*H.A.B.E. Titulu Ofizialak

*EGA

*Azterketen Prestaketa:

- Hizkuntz Eskakizunak
- IVAP - IRALE

*Euskaldunización

*Alfabetización

*Títulos Oficiales
de H.A.B.E.

*EGA

*Perfiles Lingüísticos:
- IVAP - IRALE

DIRULAGUNTZAK :

* IRUNGO UDALA

* H. A. B. E.

SUBVENCIONES :

* AYUNTAMIENTO

* H. A. B. E.

Matrikula zabalik:

Irailaren 6tik - 24ra

11,00etatik - 13,00etara

17,00etatik - 19,00etara

Telefonoz:

8,00etatik - 21,00etara

Plazo de matrícula:

del 6 al 24 de septiembre

mañanas: 11,00 - 13,00 h.

y tardes: 17,00 - 19,00 h.

Atención telefónica:

de 8,00 h. a 21,00 h.

Nafarroa Hiribidea, 13 B

20302 IRUN

Tel/Fax: 943 635266

E-mail: herjak@terra.es



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren laguntza jaso du.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

Helbidea: Salis hiribidea, 21 - behea. 20304 IRUN. Tel: 943 63 18 78. Faxe: 943 63 18 77

irunero@infotxingudi.com

Argitaratzailea: TB S.L.

Erredakzioa

maketazioa: Ana Grijalba.

Kolaboratzailea:

Mikel Asurmendi

Zuzentzailea:

Xabier Kerexeta.

Inprimategia: Antza

Tirada: 3.500 ale

Lege gordailua: SS-230-94

ISSN: 1134-0606

4.- *Lapikoan:*

- Seme-alabak etxean hezten dituen familia irundarra
- Irunen euskara sustatzeko kanpainak.
- Gipuzkoa Telebista Txingudiren programazio berria.

12.- *Kirolak:*

- Erroibide Saskibaloï Kluba

15.- *Gai Nagusia:* Adiskidetuak Elkarteak, etorkinak integratzeko tresna

19.- *Bi hitzetan:* Berri laburrak.

23.- *Kolaborazio literarioa*

24.- *Kuttun gabinete psikopedagogikoa:*

- Iraila: egokitzenaren garrantzia

26.- *Eleak iruten*

27.- *Lerroz lerro* Patxi Zabaletaren *Bizi!*

28.- *Kultur Agenda*

30.- *Gazte Informazio Bulegoko berriak.*

OLAIZOLA

Inmobiliaria agentzia

Beraketa kalea, 17
20302 IRUN

TEL: 943 62 66 84 - Faxe: 943 62 65 85

Posta elektronikoa: inmolaizola@euskalnet.net

API 316

Salmenta

Alokairuak

Promozio berriak

Aholkularitza

Eskola, etxean; gurasoak, irakasle

Haurrentzat iraila eskolara bueltatzeko garaia da. Branson-Sanchez neba-arreba irundarrek, ordea, etxean ikasiko dute eta gurasoak izango dituzte irakasle. Espainian 2.000tik gora dira alternatiba hau aukeratu duten familiak.



Branson-Sanchez familia osoa AEBetako Montanan 2010eko udan.

Munduko herrialde askotan seme-alabak etxean heztea legala da. Espainian, berriz, aukera hori alegala da; baina badira dagoeneko aldeko sententzien bidez babesa lortu duten familiak. Branson-Sancheztarren kasuak Espainian sekulako oihartzuna izan zuen duela hiru urte, lau seme-alabak eskolan ez matrikulatzea erabaki zutenean. Hezkuntza Sailak fiskaltzaren aurrean salatu zituen; hasiera batean “familiarren betebeharrak bertan behera” utzi izana leporatu bazieten ere, urte eta erdiren buruan fiskalak kasua ezin zela epaitu ebatzi zuen. Michael Branson eta Kitty Sanchez gurasoak lanbidez irakasleak dira eta arratsaldez lan egi-

ten dute. Haurrek eskolaratzeko adina zutenetik etxean hezteko ideia buruan bazebilkien ere, ez zuten gauzatu. “Aurrerago deliberatu genuen, plaza faltagatik seme-alaba guztiak zentro berean matrikulatu ezin izan genituenean”, azaldu digu Ketyk. “Gaizki moldatzen ginen eskolen ordutegi ezberdinengatik eta senarrak eta biok arratsaldez lanean jarduteagatik”. Hasi berria den ikasturte honetan, alaba zaharrena DBHko titulua lortzeko matrikulatu behar izan dute, unibertsitatera joateko ezinbesteko baldintza.

Eguneko zereginak

Branson anaia-arrebak hiru hizkuntzaz min-



Goian, Michael Branson, alaba zaharrenarekin musikatresna jotzen. Ezkerrean, alaba gazteena kanpaldi batean.

tzatzen dira eta beste bi ikasten ari dira. Goizean, ohiko testu liburuak baliatuz enborreko gaiak lantzen dituzte. Arratsaldean, haur eta gaztetxo gehienen antzera, jarduera osagarrien txanda dute; etxetik kanpo, eta beste irakasle batzuen eskutik, musika, kirola, artea ikasten dute.

Esperientzia ona

“Esperientzia oso ona izan da eta, gainera, haurrak gustura ari dira”, azpimarratu du Ketyk. Etxean hezteak jendartean sortu ohi dituen zalantzetako bat haurren sozializazioaren ingurukoa da. Ama honek seme-alabek ez dutela inongo arazorik dio. “Kontuan hartu taldean aritzen direla arratsaldean, udalekuetara joaten direla eta, edozein gaztetxok, bezala lagunak dituztela”.

Kettyren esaneko, etxean ikastea lasaiagoa da eta errazago barneratzen dituzte gaiak. Eskolako sistemari uko egiten ez dion arren, etxean hezteari eskolaren arazo handi bat saihesteko aproposa irizten dio: alegia, etxean ikaslearen erritmoa errespetatzen dela. “Hori da, hain zuzen, eskola porrotaren arrazoia nagusietako bat. Ez nago ikasleak adinaren arabera taldekatzearen alde; baina ulertzekoa da zentroetan horrela antolatu behar dutela, hori aldatzeak milioi askoko gastua ekarriko luke



“Etxean hezten dituzten familiak ez salatzea nahi dugu”

Branson-Sanchez senar-emazteak hezkuntza librearen aldeko ALE elkarteko kideak dira. “Helburu nagusietako bat etxean heztea erabaki duten familiak salatuak ez izatea lortzea da”, zehaztu digu Ketyk. “Hainbat herrialdetan bezala, legezkoa izatea nahi genuke, baina ez erregulatua. Arazoa da erregulazioak adin jakin batean azterketak gainditu behar izatea ekar lezakeela. Azterketa-sistema libre baten alde nago, baina ez adinari lotuta”.

eta”.

Familiak egindako aukeragatik bere inguruko en babesa jaso du oro har. Kontrako iritziak entzun badituzte ere, “nik uste dut ezjakintasunean errotuta zeudela”



Aitana hoteleko jatetxean milaka zamau-babes erabili dituzte.

Euskara, gure lehen platera

Irungo Udalak euskararen erabilera sustatzeko kanpaina bat abiarazi du ostatuetan eta goxoki-dendetan. Batetik, ostatuetan euskaraz eskatzen laguntzeko esamolde laburrak dakartzaten 70.000 zamau-babes banatu dira. Bestetik, goxoki-dendetako saltzaileek euskaraz hitz egiten duenari margo-kaxa opari ematen diote.

Irungo ostatuetakoa bezeroen eta langileen arteko hartu-emanaren euskaraz izan dadin bultzatu aldera, tresna orijinala baliatu du Irungo Udalak. *Euskara, gure lehen platera* leloko 70.000 zamau-babes banatu dira. Euskarri hauek, euskaraz eskatzen laguntzeko, hiru eletako hiztegi arrunt batez eta esamolde laburrez osatuak daude; esate baterako, *Kontua, mesedez eta Zer hartuko duzu?* esaldiak.

Santiago zubian dagoen Aitana hotela euskara sustatzeko ekimen honi lotu zaizkion establezimenduetako bat da. Kanpainaren lehen bi asteetan eskuratutako 1.000 zamau-babesak agortu zitzaizkien eta gustura beste horrenbeste eskatu zituzten. Bertako zuzendari Maria Jesus Bengoetxearen esanetan, “ekimena oso ona da eta, orain artekoan, gurean izandako harrera primerakoa izan da”. “Bezera batzuk, bertakoa nahiz kanpokoak, hiztegitxoak erabiltzera animatu dira eta, otordua amaitutakoan, zamau-babesa eraman egiten dute”.

Haur eta gazteak helburu
Bestalde, goxoki-dendetan *Eman zure kolorea euskarari* goiburudun 5.000 margo-kaxa banatu dira. Haur eta gazte txoek sarri bisitatzen dituzten denda mota hauetan eragin nahi da horrela. Gure hizkuntzaz mintzatzeko ohitura bultzatzearen, euskaraz eskatze-



aren truke merkatariek oparitutxoak luzatzen diete bezeroei.

Irun=2+1 egitasmoa

Euskara, gure lehen platera eta *Eman zure kolorea euskarari* kanpaina *Irun=2+1* hiriko merkataritzan, ostalaritzan eta enpresa pribatuetatik kudeatzen diren hiritarrei zuzendutako zerbitzuetan euskararen erabilera bultzatzeko egitasmoaren barruan dago kokatua. Honen bidez, komunikazioaren alorrean eta euskararen normalizazioan

laguntza teknikoak eskaintzen zaie enpresei.

Egitasmo hau 2005 urtean abian jarri zen Irungo Udalaren eskutik. Udalak jakinarazi duenez, *Irun=2+1* proiektuaren orain arteko ibilbideak erakutsi du Irungo enpresentzat, komertzionahiz zerbitzu-enpresa gisa, hobekuntzak atzeman eta aprobetxatzen laguntzen duen egitasmo bat izan dela. Aurrerantzean ere bide horretatik jarraitu nahi dute udal agintariak.

Berrikuntzak Gipuzkoa Telebista Txingudin



Ezkerretik hasita, Maribel Pagalday, Joseba Arozena, Jose Luis Reinoso eta Maria Garcia.

Gipuzkoa Telebista Txingudi laster batean hasiko da udazken-negu sasoiko programazio berria hedatzen. Saioetan zein aurkezleetan berrikuntzak dakartza.

Gipuzkoa Telebista Txingudik irailaren 20tik aurrera denboraldi berriko programazioa eskainiko du. Betidaniko ildoari eusten dio oraingoan ere, 24 orduko emanaldiaren barruan Bidasoaldeko programazioa muina baita. Halaber, ordutegi nagusian Gipuzkoara edo Euskadira hedatuko diren saioak ikusgai izango dira, guztiak bidasoarren interesekoak. Berriak, kirolak eta debateak: horiexek Gipuzkoa Telebista Txingudik 2010-2011

denboraldirako jorratuko dituen hiru ardatzak.

Debateak eta albistek

Astelehenetik ostiralera, 21:00etatik 21:30era Txingudiko albistegia emango da, bi kazetari berriren eskutik: Maria Garcia egunak eman dituen berri nagusiez arduratuko da eta Joseba Arozenak kirol munduaren kontuak jorratuko ditu. Albistegian atal berria landuko da, Punto Negro deiturikoa. Bertan, edozein gairen inguruko hiritarren kezua eta iradozkizunak jasoko dira.

Ostiraletan, astean zehar landutako albiste nabarmenek osatuko dute informazioaren tarte.

Jose txo Arrietaren gidaritzapean joan den ekainera arte zabaldutako *Hablando Claro* informazio-debate tarte saso berria ere eskainiko da, baina asteazketan 22:30ean.

Real Union

Real Unionek berezibizko pisua izaten jarraituko du. Alde batetik, astelehenero 21:30etik 23:00etara, futbol taldearen inguruko jakinarriak ekarriko dira Jose Luis Reinosak eta Silvia D'Aquilak aurkeztutako *La Banatua* izeneko saiora, Maribel Pagaldayren kolaborazioarekin.

Bestalde, Real Unionek Galen jokatu dituen partiduak emango dira, norgehiagoka bukatu eta handik ordubetera.

Realaren jarraitzaileek ere badute tarte berezia: Iñaki de Mujikak asteartero 22:30etik 23:30era zuzenduko duen *Tiempo Real*.



Jose Luis Reinoso eta Silvia D'Aquila.



Micrófono abierto

Micrófono abierto Gipuzkoa Telebista Txingudiren programa berria da. Erramun Oiarzabalek eta Rosa Borrallok herritarrek hizpide dituzten gai polemikoak landuko dituzte estudioko ezbaiaren bidez eta kaleko jendeari mikroa irekiz.

Hiru atal ditu: elkarrizketa pertsonaia herriko bati, tertulia-debatea eta lehiaketa, non Kanarietarako bidaiak zozketatuko diren.

Txingudiri buruzko programak

PROGRAMAZIOA					
	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:30-9:00	Euskadiko berrien laburpena	Euskadiko berriak (Errepikap.)			
9:00-9:30	Txingudiko berrien laburpena	Txingudiko berriak (Errepikap.)			
12:30-13:30	Foro Abierto (Errp.)	Tiempo Real (Errp.)	Gipuzkoako gaiak (Errp.)	Foro Abierto (Errp.)	Micrófono Abierto (Errp.)
13:30-14:00	Txingudiko berrien laburpena (Errp.)	Txingudiko berriak (Errepikap.)			
17:30-18:30	Foro Abierto (Errp.)	Tiempo Union (Errp.) 17:30-19:00	Tiempo Real (Errp.)	Hablando Claro (Errp.)	Micrófono Abierto (Errp.)
20:30-21:00	Euskadiko berriak				
21:00-21:30	Txingudiko berriak				Asteko berrien laburpena
21:30	La Banatua 21:30-23:00	Euskadiko magazina 21:30-22:30			Zinea
		Tiempo Real 22:30-23:30	Hablando Claro 22:30-23:30	Micrófono Abierto 22:30-23:30	
Larunbatetan eta igandeetan					Larunbatetan
12:00-14:00 Asteko Txingudiko Berrien errepikapena		20:30-22:30 Asteko Txingudiko Berrien errepikapena			18:00-19:00 Micrófono Abierto (Errp.)



F / O / T / O / K / O / P

FOTOKOPIAK KOLORETAN ETA TXURI BELTZEAN, PLANOEN FOTOKOPIAK, ENKUADERNAKETAK, PLASTIFIKAZIOAK, ORDENGAILUZKO LANAK, KAMISETAK, FAX ZERBITZUA, PAPERDENDA,...

Foruen kalea, 4 - 20302 IRUN

Tel./Fax: 943 63 22 11
E-mail: fotokop@telefonica.net

Zenbait ikastetxetan obrak egiteko 744.000 euro inbertitu dira

Azken hilabeteotan Irungo zenbait ikastetxetan instalazioak hobetzeko obrak egin dituzte. Irungo Udalak lanak esleitu ditu eta %10a ordaindu du. Gainontzekoa Eusko Jaurlaritzaren ekarpena izan da.

Ikasturte hasieran, udal agintarien ordezkari batek, tartean alkatea zegoela, burututako lan guztien berri eman zuen Txingudi Ikastolan. Hain zuzen, ikastetxe honetan diru kopuru handieneko obrak egin dira: 307.600 euro, LHko fatxadak konpondu eta pintatzeko.

Iraun haur eskolan pintatu eta itxiturak hobetu egin dira. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako eraikinetan egin



Txingudiko fatxadak konpondu eta pintatu dituzte. Frontoi bat margotzea besterik ez da geratzen lana amaitzeko.

diren obren artean, ondoko hauek dira azpimarratzekoak: Belaskoenean, kanpoko arotzeriaren aldaketa, Dunboako Haur Eskolako estaldura berria, Eguzkitzako berogailu

berriak, Elatzetako zoladura eta aldagela berriak, Lekaeneako eskaileretan eta kanaloietan egindako hobekuntzak, eta hainbat konponketa Toki Alaiko eraikinetan.

Gabiria kalea, 15 - 179
Katea auzoa - IRUN
Tel 943 63 16 32 Faxa
943 63 16 02

- SONORIZAZIOA
- ARGIZTAPENA
- GRABAZIO-ESTUDIOAK
- ERREALIZAZIORAKO PLATOAK

- BIDEO-ZINEMA-PUBLIZITATEA
- BIDEO-PROIEKTAGAILUA
- PANTAILAK



Erroibide Saskibaloia Klubeko mutilak, Gipuzkoako 1go mailan

“Probintziako lehenengo mailan jokatzeko abentura bat izango da”. Halaxe dio Klubeko presidente Enrique Lopezek 2010-11 denboraldian Erroibidek izango duen erronkaz. Aurrez aurreko honetan, presidentek ilusioz eta lanaz eraikitako kluba du solasgai.

Klubak 2004an du jatorria, La Salleko ikasle batzuek talde bat sortu nahi zutela adierazi zutenean. Urratsa emateko, gurasoen laguntza izan zuten. Baina gazteek harago jo zuten, bai eta konpetizio ofizialean sartu nahi zutela era-

baki ere. “Orduan Irungo klubekin hitz egin genuen, sortu berria genuen taldea klubek batek bere baitan har zezan. Baina klubek ezetz erantzun ziguten”. Beraz, egoerak hartarata, 2005ean Erroibide sortu zuten. Gaur



Erroibideko kide guztiak, 2009-2010eko sasoiaren aurkezpen ekitaldian. Behean, Enrique Lopez presidentea, eta 2005eko argazki bat, Klubaren lehendabiziko taldeak jokatu zuen lehen partiduarena.



egun lehiatzen diren emakumezkoen eta gizonzkoen taldez osatutako saskibaloia klub bakarra da Irunen. Guztira 7 talde eta 100 jokalaririk federatu ditu. Beste 20 lagun teknikariak eta zuzendaritzako kideak dira, guztiak ere boluntarioak. Erroibideri esker, 12 urtetik gorakoek badute hiritik joan beharrik gabe non jokatu.

- Mutilen senior taldea igotzea erabaki duzue, eta neskena, jaistea. Nolatan?

Neskak Gipuzkoa mailara jaistea erabaki dugu, ekartzen zituen gastuak gehiegizkoak zirelako. Jokalariak, adibidez, desplazamenduei aurre egiteko zailtasunak zituzten. Bestalde, mutilak maila probintzialera igotzeko beta izan genuen, talde batentzat lekua geratzen zelako.

- Zein dira erronkak 2010-11 denboraldirako?

Helburua emakumezkoen taldea 1go nazionalera pasatzea izango dugu, eta mutilak igotzeko erabakia egokia izan dela erakustea, 1go mailan lehiatzea abentura korapilatsua baita.



- Zein dira Klubaren zailtasunak?

Erakundeek ahal dutena egiten dute. Bereziki minduta gaude prentsarekin, Irun Irratia izan ezik, gainontzekoek baztertzen gaituztelako. Erroibide ez da existitzen, eta hori ez da bidezkoa, egiten ari garen lanaren emaitzak ikusita. Gurean jokatu nahi duten gero eta gaztetxo gehiagoren eskaerak jasotzen ditugu, eta adonez eta ilusioz aritzen garelako iritsi gara honaino. Nik esan ohi dut mirari bat gertatu zaigula: haur-gaztetxoak formatzeko doan lan egiten duten 9 tituludun daukagu! Bereziki nabarmendu nahi nituzke Toño Gonzalez eta Txema Miguel Bores.

irunero aldizkaria non eskura daiteke?

ANAKA

ANAKAKO KASINOA
KUTXA
BURDINDEGIA (Kutxaren
aldamenean)
ANAKAKO AUZO ELKARTEA
BIDASOAKO OSPITALEA

BELASKOENEA:

TXIMISTA TALDEA (Parrokia)
BELASKOENeko AUZO
ELKARTEA

ARBES eta PALMERA-MON- TERO

VICTORIA TABERNA
(Altzukaitz)
LA AGRICOLA
PALMERAKO HAINBAT
KAFETEGI-TABERNATAN

BEHOBIA eta ARTIA

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIA-
LA
TRINKETE TABERNA (M^a
Juncal Labandibar kalea)
AZKEN PORTU KIROLDEGIA
KUTTUNA HAUR ESKOLA
(Artiako Caro Baroja plaza)

ERDIALDEA

HERRI JAKINTZA (Nafarroa
hiribidea)
BRASIL gozo-denda
ELKAR liburu-denda
OSKARBI Liburudenda
EUSKADIKO KUTXA (Kolon)
KUTXA (Kolon)
JUBILATUEN ETXEA (Luis
Mariano)
VIRGINIA kafetegia
SIRIMIRI taberna
KUTXA (Gipuzkoa hiribidea)
KIOSKO 33 (Argentinari
Errepublikari)
HAZ-SAC

FOTOKOP (Foruen karrika)
GAZTE INFORMAZIO BULE-
GOA (Foruen karrika)
EUSKARA Arloa (Foruen
karrika)
ACUBI (Foruen karrika)
IZOKINAREN KOFRADIA
(Kale Nagusia)
ARANO taberna
MANOLO taberna
SARGIA taberna
AEK Euskaltegia
ARTXIBOA eta LIBURUTEGIA
MENDIBILGO MUSIKA
KONTSERBATORIOA
ARTALEKU KIROLDEGIA

DUNBOA

TOMA PAN Y MOJA (S.
Pedro)
OSASUN ZENTROA
KUTXA (Nafarroa hiribidea)
ERKA (Salvador Etxeandia)
ALDABE paper-denda

LAPITZE

ANBULATORIOA
AMAIA KZ eta Pio XIIko kios-
koa.
OGIBERRI (Serapio Mujika)
EUSKADIKO KUTXA (S.
Mujika)

MEAKA

MEAKAKO Bizilagunen
Elkartea
ERROTAZAR
OLA Sagardotegia

OLABERRIA

ESTEBENEA taberna
LABEKO ETXEA jatetxea

ALDE ZAHARRA

UDAL EUSKALTEGIA
ALDE ZAHARREKO BIZILA-

GUNEN ELKARTEA
(Larretxipi)
EKT (Larretxipi, 12)
KURPIL KIROLAK (Peña k.)
HAZIA taberna (Peña kalea)
ESKINA taberna
EUSKADIKO KUTXA
(Urdanibia)
KULTURA Arloa
(Ospitale Zaharra)

ANTZARAN

NEKANE paper-denda
Lekaenea

SAN MIGEL

KOLON burdindegia
(Hondarribia kalea)
KUTXA (Zubiaurre)
EUSKADIKO KUTXA
(Zubiaurre)
SAN MIGELEKO AUZO
ELKARTEA (Luis de Urantz,
24)
ATREZZO (Geltoki kalea)

SANTIAGO

AGUIRRE okindegia (Junkal)
CANON (Santiago k.)
SANTIAGO AUZO ELKAR-
TEA
BIKOTE (Erromes plaza)

URDANIBIA

TANDEM kafetegia

KATEA

KATEKO AUZO ELKARTEA

LARREAUNDI

OKINDEGIA (Eguzkitzaldea
k.)
AUZO ELKARTEA
(Iñigo Loiolako)
LARRARTE Harategia
(Eguzkitzaldea, 17)

Adiskidetuak Elkarteak 11 urte daramatza etorkinak integratzen



Mundu zabaleko atzerritarrak beren bizi-baldintzak hobetzeko aukera baten bila datoz Bidasoaldera. Adiskidetuak Elkarteak beharrezko tresnak eskaintzen dizkie, integrazioa erabatekoa izan dadin. Hilero laguntza eske zuzentzen zaizkien 300 bat lagun artatzen dituzte, asko eta asko erakundeetatik bideratuta. Baina kontu ekonomikoez nahiz juridikoez harago, Elkartearen beste adar nagusia integrazio kulturala errazteko jarduerak dira.



Goian, elkarteko lau kide: Johanna Aquiso, diruzaina; Rocio Calderón, idazkaria; Gina Castillo, presidentea, eta Idoia Ikardo, abokatua. Behean, Elkarteak antolatutako haurrentzako jarduera bat.

Adiskidetuak Elkartearen hurbiletik ezagutzeko lau kidekin aurrez aurreko landu du Irunerok: Gina Castillo, presidentea; Rocio Calderón, idazkaria; Johanna Aquiso, diruzaina eta hezitzailea, eta Idoia Ikardo, abokatua.

- Zein da Elkartearen egitekoa?

Kulturarteko elkarte da. Gure egitekoa tresnak eskaintzea da, atzerritar jatorriko pertsonak maila guztietan integra daitezzen. Gure helburua ez da pertsona horiek karitatezko egin-

tzetatik edota erakundeen laguntza sozialetatik bizi daitezzen, baizik eta ekonomikoki independenteak izan daitezzen. Integrazio osoa lortzearen, hainbat alorretan jarduten dugu: psikologikoan, juridikoan, familiarrean, lan alorrean... eta, jakina, kulturean.

- Eusko Jaurlaritzak etorkinei zuzendutako Heldu zerbitzua kendu zuen udan. Harrez geroztik jende gehiago artatzen ari zarete?

Helduk laguntza juridiko-soziala eskaintzen zuen. Bulegoak itxi zituztenetik gure zerbitzuetara jotzen dutenen kopurua handitu egin da. Gutxi gora behera, orain egunero 14 hitzordu ditugu. Halaber, ondorioetako bat izan da hainbat herritako jendea datorrela laguntza bila.

- Oro har, zein da erabiltzailearen soslaia?

Egoera erregularizatu nahi duten atzerritarrak dira. Askok hiru urtez hemen bizi ondoren lortzen dute, legeak eskaintzen duen "sustraitze bidea" izeneko baliatuz. Esan bezala, laguntza sozialak eskuratzen laguntzea azken errekurtsoa da, horrek ez baitu erregularizaziora eramaten, kontratua izateak eta kotizatzeak, ordea, bai.

Halaber, haien egoera erregularra izanez gero, familiako

kideak ekarri nahi dituztenen kasuak aipagarriak dira. Era berean, atzerritarren bati lana eman nahi dioten enplegatzaileak ere informazio eske etortzen zaizkigu.

- Irungo Udalarekin elkarlan estuan aritzen zarete?

Bai. Gizarte Zerbitzuetan atzerritarrek elkarriketatzen dituzte eta, laguntza juridikoa behar izanez gero, hona bideratzen dituzte. Bestetik, familia desegituratua dagoenean, gurera jotzeko gomendatu ohi diete.

- Tratu txarrak pairatzen dituzten emakumeen kasuak nola bideratzen dituzue?

Badira egoera erregularrean gizonari esker bizi direlako zorretan sentitu eta salatzen ausartzen ez direnak, edota banantzerakoan baimenak galduko dituztelakoan daudenak. Baimena eskuratzeko aukera badutela informatzen diegu.



Elkarteko zenbait partaide Irungo egoitzan.

Emakume hauei laguntza psikologikoa emateko erakundeekin elkarlanean aritzen gara.

- Jeneralean langile atzerritarrekiko abusuak gertatzen al dira Bidasoan?

Hemen Madrilen baino abusu kasu gutxiago dago. Arazo ekonomikoak tartean ez daudenean, normalean ez dago abusurik. Dependentsia legea lagungarria gertatu zaie senideak zaintzeko norbait kontratatzeko zailtasunak zituztenei.

- Gogoratzen al duzue kasu bereziren bat?

Duela urte batzuk neska batek pertsona zahar bat zaintzeko lan ona lortu zuen. Ama gaitoxotu zitzaionean, pentsatu gabe herrialdera bueltatu zen. Itzuli zenean kanporatze agindua jaso zuen. Hemen geratu ziren lagunak, berriz, baime-nak eskuratu zitzioten. Lana topatu zuen, baina nagusia esplotatzailea zen. Bere buruaz beste egin nahi zuela ere esan zuen. Orain ospitale



KUTTUN

KUTTUN, AHOLKULARITZA PSIKOPEDAGOGIKOA

FORMAKUNTZA (HHL, DBH): guraso, irakasle, jangelako begirale...
GAI ANITZAK: Adimen emozionala, noiz eta nola ipini mugak, gatazken konponbidea, garapen afektibo-sexuala...
eta AHOLKULARITZA psikologikoa, pedagogikoa, sexologikoa eta psikomotorea.

Banakako zein familiako TERAPIA

Legia kalea 8, BELLAS ARTES, 8. lokala. IRUN

www.kuttun.net kuttun@kuttun.net

TEL: 605 744 692

psikiatrikoan dago.

Amaiera zorionsuko kasuak ugariak dira. Familiako kide guztiak biltzea lortzean sekulako une pozgarriak bizi dituztela ikusi dugu. Gure egoitzara ere etorri ohi dira guztiak, emandako laguntza eskertzera!

Elkarteko kide zenbait, gure ingurua ezagutzeko Plaiaundiko parke ekologikora egin zuten irteeran.



Etorkinen elkarte berria jaio da Irunen

Estrella Radiante Euskadin bizi diren indoamerikar etorkinen elkarte sortu berria da. Dagoeneko 100 kide inguru ditu; gehienak peruarrak dira, baina beste zenbait herrialdetakoak ere badira. Guztiak jatorri komuna dute; alegia, espainiar inbasioaren eraginez handitu ziren herri txikietatik datozela.

Elkartearen helbururik behinena indoamerikar komunitateen integrazio soziokulturala bultzatzean datza. Bigarrena euskal gizartean integratzea da, eta hirugarrena, kolektiboaren bizi-kalitatea hobetzeko proiektuak abian jartzea.



Integratzeko jarduerak

Adiskidetukoek berebiziko garrantzia ematen diote atzeritarren integrazio soziokulturalari. Hartara, haurrei nahiz helduei zuzendutako hainbat jarduera antolatzen dituzte. Horieta bat argazkian agertzen den Urantzu pilotalekuan burututako zesta-punta saioa. Horrelako topaketak oso baliagarriak dira galdutako harremanek utzitako hutsunea betetzeko.

Kemen Dantza Taldeak bere jantzitegiaren lagina erakutsi du



Ezkerrean, Aezkoako bailaran eguneroko bizitzan erabiltzen ziren jantziak. Eskuinean, Nafarroako Erriberako Murchante eta Cortes herrietakoak.

Irungo Kemen Dantza Taldeak bere jantzi bilduma aberatsaren lagina erakutsi du abuztuko azken bi asteetan zehar Hondarribiko Zuloaga etxean, euskal kultura dantzatua zabaltzeko xedez. Hain zehatz, erakusketa horretarako Nafarroako bailara ezberdinetako jantziak

aukeratu dituzte. Batzuk jatorrizko herrietan egun berezietan erabili ohi dituzte, hala nola, inauterietan edo jai nagusietan. Beste jantzi batzuk, berriz, XIX. mende amaiera eta XX. mende hasierako urteetan eguneroko bizitzan erabiltzen ziren.

Irunen 11.857 ikasle inskribatu dira

2010-2011 ikasturterako, hiriko ikastetxeetan 11.857 ikasle inskribatu direla jakinarazi du Cristina Laborda Irungo Udaleko Hezkuntza Ordezkarriak. Kopuru horren barne daude haurtzaindegiak, Lanbide Hezkiteta institutuak, Helduen Hezkuntza zentroak eta Hizkuntza Eskola Ofiziala.

Bi urteko geletarako, 310 ikasle berri aurrematrikulatu ziren; hiru urteko geletarako, 558.

Datuok aurreko urteetako oso antzekoak dira.

Behin betiko matrikula kopurua zein den irailan zehar zehaztu du Udalak, klaseak hasi eta gero.

Menchu Gal aretoak bilduma berritu du

Menchu Gal erakusgela zabaldu zenetik lehenengo sei hilabeteak pasa ondoren, eta publikoaren aldetik izandako harrera bikaina ikusita, erakusketaren edukia hein batean aldatu da. Hartara, Kutxak Irungo Udalarai aldi baterako mailegua egingo dio. Zehatzago, koloretako hamabi grabatuk osatzen duten sail bat eta Hondarribiko ikuspegi baten 1981eko olio-pintura bat ikusgai daude. Obra guztiek paisaiak islatzen dituzte. Beraz, 2010eko bigarren seihilekoan zehar honako lanak daude aretoan:

Lehenengo aretoan, MENCHU GALEK olio-pinturan izandako ibilbide kronologikoa mantentzen da. Kutxari eskatu zaion obra gehitzeaz gain, orain arte erakusgai egondako



Menchu Gal Aretoa Urdanibia plazan dago.

koak- dro batzuk kendu eta udal bildumako beste batzuk jarri dira.

Bigarren aretoan, bildumako hamabi grabatuak ezarriko dira. Hala, alkateak dioenez,

“aldaketa hauen bitartez MENCHU GALen garai guztiei buruzko ikuspegi zabalaz gozatu ahal izango dugu, eta, aldi berean, elementu berri bat sartuko dugu: bere obra grafikoa”.

Irunek energia aurreztearen aldeko europar ituna sinatu du

Jose Antonio Santano Irungo alkateak, Alkateen Ituna delakoa sinatuta, energiaren erabilera eraginkorragoa egiteko eta energia aurrezteko politikan beste urrats bat eman du. Europar Batzordearen ekimena da ituna, Euskadin EEE-Energiaren Euskal Erakundeak zuzentzen duena.

Bertan ezartzen diren helburuak handiak dira; izan ere, EBko estatuek isurtzen duten CO₂ kopurua 2020rako %20 murrizteko konpromisoa hartu baitute. Helburua energia-eraginkortasuna hobetuz eta energia berriztagarriak erabiliz lortu behar dela ezartzen du itunak.

Irugurutzetako labeen interpretazio zentroa sortzeko lehen urratsak



Irugurutzetako labeen interpretazio zentroa sortzeko proiektuak lehen urratsak eman ditu irailean. Inguruaren egokitze lanak burutzeko proiektuaren erredakzioa Teusa enpresari esleitu zaio. Ekimen hau Irungo Udalak eta BEHEMENDI Landa Garapen Elkarteak jarri dute abian. Esku-hartzea xumea izango da, inguruan egoki txertatua eta, aldi berean, kaltzinazio labeen multzoa nahiz ingurua finkatzea ahalbidetuko duena.

Eremuak guztira 720 metro koadro ditu, bost espaziotan banatuta. Jatorrizko zenbait horma armatu gabeko hormigoizkoak dira eta ondorengo beste batzuk, hormigoi armatuzkoak.

Proiektuak antzina ezponda naturala izan zitekeena mantenduko du, non ateratako materiala pilatzen baitzen. Lubetaren maila ere leheneratuko da, interpretazio zentroaren estalkia izan dadin.

Zentroaren xedea meategietan egiten zen lana ezagutaraztea da, ingurua bisitatuz hiriko ondare honen balioa gerraraztea.

Txingudiko bertso-eskola, abian

IRUNABAR Irungo Bertsoaren Bilguneak kudeatzen duen Txingudiko Bertso-Eskolaren ikasturte berria urriaren 5ean hasiko da. Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren laguntzari esker, eskolan bertsolaritaz gozatzen jarraitzeko garaia bukatu zaien gaztetxoei amaigabeko bertso-aukeren zerrenda eskaintzera dator IRUNABAR.

Bilguneako kideek adierazi dutenez, bertsolari-

tzak eskualdean bizirik iraungo badu, ezinbestekoa da belaunaldiz belaunaldiko errelebo-katea hausturarik gabea izatea, “eta, horretarako, Txingudiko eskolek adin guztietako partaideak eskaintzea oso lagungarria litzateke”.

Beraz, IRUNABAREk gazteak animatu eta dei egiten die urriaren 5ean 18:30ean Irungo EKT (Larretxipi kalea) Elkartera joan daitezen.

Txingudi BHIko ikasleen lan uzta, bi argitalpenetan

Txingudi BHIko ikasleen 2009-2010 ikasturteko ekoizpen idatziaren lagina biltzen duten bi argitalpen plazaratu dira, institutuko Hizkuntza Normalkuntza Batzordearen eta Mintegien ekimenez eta Irungo Udalaren nahiz Guraso Elkartearen diru laguntzaz.

Batetik, ikasturtean zehar burututako literatur txapelketa ezberdinetako lan onenak liburu batera ekarri dira. Gehienak euskaraz idatzitakoak diren arren, gaztelera eta ingeles mintegietako ale batzuk ere irakurgai dira.

Bestetik, *Azken Hitza* izeneko aldizkariaren bitartez gazte-txoen gai eta genero anitzeko idazlanak zabaldu dira batik



Ezkerrean, *Azken Hitza*, DBHko ikasleen aldizkaria. Eskubian, 2009-2010 ikasturteko literatur lan onenak biltzen dituen liburua.

bat, tartean obra grafikoak ere badirela. Txingudi BHIko idazleak eta, oro har, idazteko

zaletasuna bultzatzen, motibatzen eta animatzen jarraitzea da ekimen hauen xedea.

Nerabeentzako eta gurasoentzako laguntza programak

NERABEENTZAKO LAGUNTZA PROGRAMA. Haien etapa ebolutiboan laguntzea, nortasunaren garapena bultzatzea eta arrisku-jokaerak prebenitzea du helburu.

Taldea elkartuz, gazteek hauxe egin dezakete:
- Haien zalantzak eta esperientziak konpartitu.
- Arazoak nola konpondu pentsatu, orientazioa bilatu eta laguntza aurkitu

GURASOEI HAURREN HEZIKETAN LAGUNTZEKO TALDEAK, familiari, talde-

en bitartez, laguntza eskaintzeko programa bat da, honako xede hauek dituen:

- Zalantzak eta esperientziak konpartitzea.
- Orientazioa eta laguntza aurkitzea.

IZENA EMATEKO EPEA: Irailaren 15etik urriaren 15era

Parte hartu nahi baduzu, 010 telefonora deitu (943 50 51 52) eta esku-hartze komunitariorako zerbitzuarekin hitzordua eskatu.

Jose Maya 2002an zendu zen eta bere errautsak uda hone-tan aireratu zituzten. Alaba Ainarak irailaren 15ean aitaren urtebetetzea izango zelako kolaborazio hau idatzi du.

Izan zoriontsu!

Amaiur, 2010eko abuztuaren 8a, igandea, goizeko 10etan elizan

Ainarita:

Zer moduz zaude?

Aurtengo zure eskutitza jaso nuen aitaren egunean, eta poztu nintzen ongi zinela jakitea, baina bes-talde, triste paratu nintzen ez zinela zoriontsu irakurrita... zoriontsu izateko eskatu nizun 2002ko udazkenean, eta zure azken eskutitzean hitz eman didazu zure indar osoz saiatuko zarela. Oraingoan bai, Ainarita! Izan zoriontsu! Uste baino simpleagoa da...

Zuhaitzak berde dauden garaio-tan, eta udako eguzki-errainuen bitartez laztantzen zaitudalarik, malkoek egindako bideetan niri ere oroi-mina datorkit, baina itxaropenez beterik naukazu. Udako zuhaitzak bezalaxe ni ere jantzi naiz bero samurrez teilatu gorrien azpiko lastozko eta buztinezko ainaren habiak begien bistan. Bihotz itxurako ezki-hosto ximel bat gorde nuen udaberriko zure eskutitzean, eta oroitzapenek eusten gaituzte. Udaberriak biziberri-tu gintuen pozez gainezka maite-mindurik, beharbada udak zuriz jantzirik udazkeneko berri on polit bat ekarriko baitigu gure bihotzeta-tara, lkerri eta amari. Eta zure bihotzari ere xuxurlatuko dio hain-beste maite duzun mutil horren oihartzunak maite zaituela.

Agur erran genion elkarri duela ia zortzi urte, bai, baina nik ez nizun agur erran nahi, ikusi arte baizik. Zuetaz oso harro nago, gizon eta emakume zintzoak baitzarete, bihotz onekoak, eta zoriontsu izan,

arren; saiatu, ainarita, zorioneko zu, maite zaituen horrenbeste pertsona duzulako!

Zoriontsu izan, Ainarita!

Beharbada min handia egin dizu batek partikularki bihotzean, oraindik itxi ez den zauria, eta beharbada beti hor izanen duzu-na, baina oroitu zure maitasuna handiago dela.

Jose Maya Dendarieta

Izan zoriontsu!

Maite ez zaituena beretzat okerra-go, ez baitaki zer den maitasuna eta adiskidetasuna, nahiz eta zoriontsu dela erran dizun. Hutsunez, zauriz eta maitasunez beteriko bihotz on horrek aitzina segituko du, zuk diozun bezala, alabatxo, bizitzak ere ezusteko atseginak ematen baititu noizean behin, eta horiek probexen jakitea da zoriontsu izatea. Zuk bada-kizu zoriontsu izaten, nahiz eta azken urte bi hauetan negar aunitz egin, irribarre zabala ere eskaini baitiezu ingurukoei. Uda honetako azkenak ere ezusteko atsegin bat emango dio zure bihotz maitemindu horri azkenean, ikusiko duzu, ainarita!

Gauero izanen duzu nire Hilargia, eta goizero agertuko zaizu Eguzkia, zure urrats lotsati bezain sendoen zaindari. Segi lasai zuen bidean, ni neurean noa, beti aitzina, ikusi arte. Hementxe gaude zeruetako oturuntza honetan, eta gainera, aurten amatxi Bittori eta izeba Kontxi ere bildu zaizkigu zeruetako besta handi honetara.

Agur erran genion elkarri, bai, baina agur hori ez zen betirako izan, betiko oroitzea baizik.



Oroitzea, beharbada, noizbait elkar ikusiko dugula, eta ez badugu elkar ikusiko ere noizbait elkar ikusiko dugun itxaropenaz biziko naiz zoriontsu. Badakizue beti bihotzean eramanen zaituztedala. Beharbada zu nire besotik zuriz jantzirik ikusi nahi zintudan, zure bikotekidearenganantz, eta nire bilobekin jolastu nahi nuen, baina ia inor ez da ausartu zu maitatzera lotsati eta isil ikusten zintuztelako. Hala ere, oroitu ezkontza gutxitan dela zoriona, nire kasuan hala izan bazen ere, eta honen guztionen ondoren, erran, nire ametsa zu zoriontsu ikustea dela, zuriz edo beltzez, bikotekidearekin edo bakarrik. Baina segi, arren, maitasunezko eskutitzak idazten, nahiz eta erantzunik ez jaso.

Jose Maya Dendarieta

Izan zoriontsu!

Denok gaude bakarrik, baina ez gara bakarrik sentitzen.

Izan zoriontsu, Ainarita eta ahanzi bihotz min horiek irribarre polit horrekin oroitu nik maite zaitudala, abandonatu zintuen horrek baino aunitzez gehiago eta igande honetan Gorramendi kaskora igota bota gure irrintzia: Gora gu ta gutarrak!...

Amaitu dira oporrak haur eta heldu gehienentzat, eskolara edo lanera bueltatzeko unea iritsi da. Ez da erraza izaten erritmo lasai eta ardura gutxietatik erritmo azkarrera eta ohiko eginbeharretara bueltatzea. Beraz, azter dezagun eskolara bueltatzeko baliagarriak izan daitezkeen zenbait ohar:

- Gure haurrei, poliki-poliki, laster eskolara hasiko garela adierazten has gaitzke: “Maitea: badakizu (txikiei egutegiko orri bat pasa dugula) laster duzun! lagunak berriro ikusi eta haiekin jolastuko zara. Lan egin beharko duzu, baina zu oso argia zara eta erritmoa berehala hartuko duzu.”
- Mezu positiboak izatea garrantzitsua da oso; lagunak ikusi, gauza berri interesgarriak ikasiko, gustuko dituen eskolaz kanpoko ekintzak egingo dituela... Batzuetan, gurasook haurrak eskolan hasteko gogoaz izaten dugu, gure lanean edo errutinan normaltasunean aritu nahi baitugu, eta, nahi gabe, gure irrika adierazten dugu. Garrantzitsua da hori zaintzea; haurrek gure beharra dute eta zama direla sentitzeak eskolara joan nahi ez izateko jarrera susta dezake.
- Eskola garaiko ordutegia hartzen hasi beharko dugu emeki-emeki; etxera lehenago iristen, afalorduak eta lotarako ordutegia aurreratzen errespetatzea, goizago jaiki...
- 0-3 urteko haurrek eskoletan egokitzapena egiten dute. Egokitzapen hau ez da eroso gurasoentzat, batez ere lanean ari direnentzat, baina duen garrantzia argi utzi

nahi genuke:

Haurra, adin tarte horretan, mundua deskubritzen edo ezagutzen ari da; inguruko gauzak behatzen ditu, gauzak hartu eta esploratu, eta harremanetan jartzen da beste pertsonekin eta inguruarekin. Behaketa eta esplorazio hauek garapen kognitibo eta afektibo positibo egiten laguntzen diote haurrari. Horretarako, mundura ireki eta deskubritzeko segurtasuna ematen dion oinarri bat behar du: horri atxikimendu-irudia deitzen diogu. Atxikimendua haurrak pertsona helduekin egiten duen harreman afektiboa da, eta harreman hau seguru izatea oinarritzkoa da. Lehen harreman eta lotura horiek eragina izango dute haurrak etorkizunean izango duen segurtasun eta babes emozionalean, bai eta egingo dituen harreman positiboetan ere.

Adin tarte horretan, gurasook gara atxikimendu-irudi nagusiak; baina irakasleak ere garrantzi handia hartzen du, gure haurrekin denbora asko pasatzen duelako. Beraz, irakasleekin atxikimendu lotura eraiki behar dute, eta horretarako denbora behar dute. Irakasle eta eskolako espazioarekin lotura emeki eta lasai egiteak garrantzia handia

Ez dut eskolar



ra joan nahi!!



du. Haur bakoitza mundu bat da, denbora eta erritmo desberdinak behar dituzte inguru eta jende berriekin lotura seguruak eraikitzeko. Haurrak lotura segurua egiten badu poliki sartuko da giro berrian eta gustura joango da eskolara. Beraz, ikastetxeek duten egokitzen prozesua ulertzea eta errespetatzea funtsezkoa da. Gurasook haurrari espazio berria poliki ezagutzen eta irakaslearekin lotura seguruak eraikitzen lagundu behar diogu, pazientziarekin eta segurtasunarekin emanez. Haurra esku onetan geratzen dela sentitu behar dugu. Guk sentitzen badugu haurra ongi dagoela horixe islatuko diogu haurrari, haurra eskolan utzi behar dugunean banaketa onartu, era honetan ziurtasuna eskainiko diogu. Beharbada ez dugu utzi nahi; orduan beste

bide batzuk aurkitzen saiatu beharko genuke (lan murrizketak, beste pertsona edo senide bat kontratatu haurra zaintzeko...)

• Gazteek ere segurtasunezko lotura bat behar dute irakaslearekin; batik bat, babes afektiboa sentitzeko eta eskolako eremuan lasaitasunez ibiltzeko. Ziklo aldaketak ere kontutan hartu behar dira. Haurrek ikaskide, irakasle edo eskola berriak izan ditzakete,

eta aldaketa horiek guztiak beti urduri edo beldurrez jartzen gaituzte. Nor ez da beldur edo urduri leku edo lan berri batera joan behar duenean? Haurrari segurtasuna emateko zerk kezkatzen duen galdetu eta segurtasuna emango diogu; aurretik, haiekin joango den ikaskide batekin geratu, eskola berria ikustera joan, irakaslea ezagutu, behar diren gauza guztiak prestatu...

• Haurrak eskolan ongi daude, zainduak daude; baina argi eduki behar dugu gure haurren hezitzaile nagusiak gu geu garela, gurasook, alegia. Gurekin bezain ongi ez direla inorekin izango, gu baikara haien erreferente nagusiak. Beraz, ikasturte hasieran ez ezik, ahal dugunean haurrak gurekin egotea beharrezkoa da; ahal dugunean etxera bazkaltzera ekarri, jolastokietara eraman lagunekin jolasteko, elkarrekin gustuko plana egin... Gurasook gara haien erreferentea eta eredia (haiek onartu ala ez) eta beren afektibitate eta babes emozionalaren sortzaile nagusiak.

Lagunok: oporretan egotea zoragarri da; baina egunerokoari ere alde ona atera diezaiokegu, ezta? Izan zoriontsu eta gozatu momentuaz. Beno, eta San Ferminetan esaten den moduan; jada gutxiago geratzen da hurrengo oporretarako!!! A! eta oraindik oporrak hartu ez badituzu (ze zortea!), ondo pasa!

**KUTTUN AHOLKULARITZA
PSIKOPEDAGOGIKOA.**

kuttun@kuttun.net

Iraila, ira, iratze edo garoaren hilabetea, buruila ere deitua. “Lerroz lerro” orriko lehen eleekin hasi naiz iruten iraileko hosto hau: “Irail gorrail”, “Irail horail”, “Irail mirail”...

“Irail, arrail eta jorrail”!

Haritz-iratze. Iratze ar. Iratze arrunt. Iratze eme. San Joan iratze. Orrazi-ira-tze. Sorgin-iratze... Horra iratze sorta! Iraila idatzi eta erranairu berriak heldu zaizkit gogora: “Irail gorrail”, “Irail horail”, “Irail mirail”...

“Esaera zahar edo erretrau bat iruteko, bi adiera behar-ko litzuzke idatziak” pentsatut. Hala izanda ere, gaur egunean osatutako esamoldea “esan berria” liteke? Hau da, noiz bihurtzen da esaera bat esaera zahar? Esaera berria, noiz bihurtzen da erretrau? Esaera berria erretrau al da? Dena dela ere, saia nadin esaera berriak iruten: “Irail gorraila, eguzkiaren miraila”. “Irail horaila, ilargiaren miraila”, “Apirila jorraila, iraila arraila”.

Ez dakit esamolde horiek nik asmatuak diren. Egokiak badira, erran dezagun esan zaharrak direla eta txarrak badira, nik asmatuak. Neronek asmatutako esaera txar berriak. “Arrail” hitza bitxia da. Arraildua, mozkortua egotea da Iparraldean. “Arraileria” berriz, txantxa edo burla da. Lasai, baina, ez nago arraildurik eta ez nator arrailerietan. Besterik gabe, neroni, Bidasoaz goi-aldean, iraila *la rentrée* delakoaren hilabetea dela gogoratzera nentorren. Haatik, eleen jorran burua arraildu zait nonbait. *La rentrée* delakoan ahula(go)ak eta nahasia(go)ak izaten gara nonbait.

La rentrée udako oporraldiaren ondoren, ikas-tetxeetara itzulera adierazteko espresioa da. Frantzia politikariek ere erabiltzen dute euren



itzulera izendatzeko. Adierazpideak Iparraldetik Hegoaldera bide egin du azkeneko urteotan. Hegoaldean ere, buruak huts egiten ez badit, EAEko herri bat izendatzeko eufemismoa— Patxi Lopez lehendakariak, ekinaldi edo ibilbide politiko berriaren hasiera izendatzeko *La rentrée* erabili duelakoan nago.

Alegia, kurtso politiko berriaren abiaburua izendatzeko.

Kurtsoa bere jatorrian —ibai bateko— urak seinalatutako ibilbidea da. *Kurtso*, gero, gure erdarretan, ikaskuntza aldiari deitu eta deitzen zaio. Euskaraz ikaskuntza aldiari *ikasturte* deitu eta deitzen zaio. Hitz egokia deritzot, bistan da, bistan denez. Alabaina, inertziak edota ignorantziaz, uda ondoren hasten diren ekitaldi edo kurtso ia guztiak ikasturte bihurtarazi ditugu.

Esaterako, irailean *ikasturte politikoa* hasten da urtero. Alta bada, inkestek diotenez, politikari (ia) guztiak urtero-urtero ez dute bosteko nota gaintitzen, hots, *ikasturte* oro suspenditu egiten dute. Eta halere, ikasturte berrian denek segitzen dute kurtsoa gaintitu izan balute bezala.

Kurtso berriari *ikasturte* dei dakiok. Baina, esaera zaharrak dioenez “Oro ez da urrea”. Eleen jorran burua arraildu zaidala errana dut jada. Hara, honelako zerbait adierazi nahi nuen: “Oro ez da urrea” beraz “Irail, arrail eta jorrail”.

MIKEL ASURMENDI

Iraila, ira, iratze edota garoaren hilabetea, buruila ere deitua. Nafar iparraldetik heldu zaigu buruila elea. Nafarroatik heldu ere olerkari ere dugun Patxi Zabaleta idazlea. Poesia dakar irailak.

Herri baten premonizioak: aieruak eta bihozkadak

Belate mendian gora irudikatu dugu *Bizi!* liburuaren egilea. Baztanen gandi heldu da, Amaiurko Gaztelua gogoan. Nafarroako historiaren behatzaile heldu zaigu poeta. Mende erdi baten ibilbidea eginik, hizlari sendoa izaki, herriaren sendotasuna olerkiz bermatu aldera heldu ere.

Olerkari hitza aldarrikatzen du Leitzako idazleak. Leitza *haitz* (aizkolarien herria) eta *harri* (harri-jasotzaileen herria) herria iruditu zait gaztarotik. Helduaroan berriz, hitz (hizkolari edo hizlari) sendoen herri gisa. Zabaletaren jardun poetikoa lekuko.

Bizi!, premonizio liburua begitandu zait oroz ginetik. Herria, lurra, maitasuna eta politika grinaz eta pasioz bizi dituen pertsona ibiltari honen suharraren arragoa da. *Bizi!* olerkari nafarraren –berrogeita hamar urteko aldiaren bizitako– aieru eta bihozkadak dira. Ez dira bere erresumin guztiak ageri, baina daudenak, ia gehienak, erresuminak direla erranen nuke

Patxi Zabaleta animalia politikoa da. Euskal Herria aberritzat duen politiko olerkari errebolotaria, Nafarroako eta euskal historiaren ezagutzailea eta herriko azken errebolotaren begiratzailea. Politikaria eta begiratzailea, ez horregatik behatzaile galdoa.

Literatura eta politika baltzuan bizi dituen idazle izaki, herri politikaren olerkari irulea da,



Liburua: *Bizi!*
Egilea: Patxi Zabaleta
Argitaletxea: Pamiela

bizitzaren irulea. Lurraren (Aberria) askatasunaren aldeko hitzen irule, askatasunaren aldeko aldarrien irule. Azken errebolta lekuko zuzena izaki, Zabaletak galtzaileen kutsuz eta doinuaz irun egin ditu olerkiak.

Gaur egun ez da *Bizi!* liburuaren antzeko poesia lantzen. Politika eta erlijioa antzeko jardunak izaki, politika barruraino bizi duen idazle honek otoitz kutsuko olerkiak ondu ditu halabeharrez. Bere poesia jardun aratz izatetik honago edo harago dago inondik ere. Herri honen historiarekiko bere bizipenetatik irun

egin du hitza, aberriarekiko maitasun bizipenetatik, herriarekiko maitasun ezinezkotik, “Iraultza” zapuztuarekiko bizipenetatik.

Aberria ala hil! uxatu eta *Aberriagatik bizi!* eta *Iraultzagatik bizi!* aldarriak proposatzen dizkigu Leitzako hitz-kolariak, hitz-jasotzaileak, hitz iruleak. *Bizi!* gure historiako gatazka eta sindrome sozialak gainditzeko euskal sen berria kitzikatzeko deia darra da. Nafarroaren kateetan kateatutako Arrano Beltzari hauspo emateko irun eta ondutako liburua. Agian, bereziki, Euskal Herriaren askatasunaren alde kartzelan kateaturik dauden euskal borrokalarienezako *Bizi!* hitzak dira. Agian!

MIKEL ASURMENDI

k u l t u r a g e n d a

Irailak 21

- Amaia KZn, 18:30ean, Alzheimer gaixotasunaren eguna dela eta, bioetikan aditua den Eduardo Clavé-ren hitzaldia. Antolatzailea: AFAGI.

Irailak 28

- Amaia KZko hitzaldi aretoan, 19:00etan, Donizettiren *Lucia Di Lammermoor* operaren proiektzioa.

Irailak 28-Urriak 10

- Euskadiko Kutxako erakustaretoan, Xabier Arribas pintura ikastegiko ikasleen lanak.

Irailak 26

- Amaia KZn, 20:00etan, Abstractosfera taldeak *El juego de la acacia* lana antzetzuko du, Medicus Mundiren *Stop Malaria* programaren barruan. Sarrera: doan.

Arte ikastaroak

- Oiasso Museoa,



Kutxarekin elkarlanean, bi ikastaro antolatu ditu:

1.- GREZIAR ARTEA. Datak: irailaren 27tik abenduaren 20ra. Lekua: Donostiako Andia kalean. Ordua: Astelehenero 19:15etik 20:15era.

2.- ARKEOLOGIAREN ALTXOR HANDIAK. Datak: urriaren 27tik azaroaren 24ra. Lekua: Bergara. Orduetgia asteazkenero arratsaldez.

Izen-ematea: www.kutxasocial.net webean edo 902-540040 telefonon.

tunk! aretoko kontzertuak

- Irailak 18, gauerdian.

Disco night disco ligh
- **Urriak 8**, ostirala, 23:00etan: Hendaiakeo Habité Records techno/house zigiluak estilo bereko musikako Keezako Records bordeldarra gonbidatu du.

Halaber Vj. Soncek-ek emanaldia eskainiko du.

Irailak 14 - 26

- Euskadiko Kutxan, Mikel Benito Rodriguezen pintura eta eskultura erakusketa

Mugikortasun iraukorraren astea

- Irailaren 22tik 24ra, arratsaldean, doako bizikleta-mailegua.
- Irailaren 22an, 23an eta 24an, Oiasso Museoa, hitzaldiak.
- Irailak 25, Zabaltza plazan hainbat ekintza.
- Irailak 26, 10etan, Zabaltza plazatik, kultur ibilbidea bizikletaz. Goizean zehar, Zabaltzan, bizikleta elektrikoaren zirkuitua.

SPORTJAM: Ekintza kirolen azoka

SPORTJAM 2010

Ekintza-kirolen azoka.

Non: Ficoban

Noiz: Irailaren 18an eta 19an.

- Ekintza-kirolen azoka eta jaialdia.
- + Surf, Skate, Snow
- + Standak
- + Jendearentzako salmenta.



Berrikuntzak:

- Neska patinatzaileen lehiaketa.
- Zurezko arrapala erraldoia.
- Skate park eremu handiagoa.
- Lehiaketa parkea aurreko urteetan baino lau ordu lehenago irekiko da: 10:00etatik 20:00etara.

Bidasoa kaleko aztarna arkeologikoak



Urriaren 31era arte, Oiasso Erromatar Museoa, Irungo Bidasoa kaleko aurkikuntzen erakusketa.

"El Bidasoa canta" kantu jaialdia

- Irailaren 17tik 19ra, Amaia KZn, "El Bidasoa canta" kantu jaialdia, Ametsa Kultur Elkarteak antolatuta.

Irailak 17, 20:00etan, honako abesbatza hauen emanaldia: Entzun (Hendaia)

Eskifaia (Hondarribia) eta Gazteluzahar (Hendaia).

Irailak 18, 20:00etan: Berako Abesbatza, Xatz (Hondarribia), Lesakako Abesbatza eta Larraundi (Irun).

Irailak 19, 20:00etan: Otxailan (Hendaia), Goxoki (Hondarribia) eta Ametsa (Irun).



Opera

- **Urriaren 2an eta 3an**, 19:00etan, Amaia KZn, opera. G. Donizettiren *Lucia di*

Lammermoor obra interpretatuko da, Luis Mariano Lirika Elkarteak antolatuta.

www.lirica-luismariano.org



Audi

Orrialde hauetako informazio guztia, zabalago, www.irun.org/igazte webgunean.

Bekak



- **IRUNGO UDALAK J.A. LOIDI** ikerketa beka deitu du.
Baldintzak: Lana euskaraz egingo da eta argitaratu gabea izan behar du.
Iraupena: 12 hilabete. **Diru zenbatekoa:** 9.000 euro.
Epea: Proiektuak irailaren 6tik 24ra aurkeztuko dira.
www.irun.org/euskara



- **EUROPAKO ESQUALDEEN** Batzordean praktikak 5 hila-betez. **Baldintzak:** 30 urtetik beherakoa izatea eta gutxienez 3 urteko unibertsitate-ikasketak burutuak izatea.



Lehiaketak



- **IRUNGO GAZTE ZINEMA ETA BIDEOAREN XV. LEHIAKETA.** Lehiaketa abenduaren 26, 27, 28 eta 29an egingo da. **Baldintzak:** 1975etik 92ra bitartean jaiotako errealizazioak parte har dezakete.

Izen-emateak urriaren 1era arte egin ahal izango dira.

- **BIDAIA ETA MENDI KRONIKEN** Lehiaketa.
Antolatzailea: Berria.
Lehen saria: 10 eguneko trekking ibilaldia Marokon.
Epea: Abenduak 9.

- **KOMIKI LEHIAKETA.**
Gaia: globalizazioa eta eskubideak.
Baldintzak: 16tik 35era urte bitartekoentzat.
Epea: Azaroak 1.

harpidetza



gazte
informazioa

IRUNGO UDALAK
Tf 843 506 444
843 506 440

Beka, jardunaldi, ikastaro, lehiaketa edo lanari buruz adi egon nahi baduzu, eska lehiaketa, eta astero bidaliko dituzgu informazioa zure etxera nahiz posta elektronikora.

IZEN-ABIZERNAK.
 HELBIDEA,
 P.K. **BERRIA**
 POSTA ELEKTRONIKOA
 Si quieres estar al día sobre becas, actividades, cursos, concursos y trabajo, pídennoslo y te enviaremos información semanal a tu casa o correo electrónico.

Ikastaroak



- **BIDAIARI DUBI DUBI BIDEO**
Lehiaketa deitu du Bilboko Udalak. Baldintzak: Gutxienez 18 urte izatea. Epea: Lanak urriaren 1etik 15era igorri beharko dira.



- **LEGALEON T IRUNGO ANTZERKI** taldeak ikastaroak antolatu ditu. Adin guztiak. Izen-emateak: irailaren 13tik 24ra, eguerdiko 12etatik 14:00etara, 676 53 65 46

telefonoan edo
espelega@gmail.com -en



Aterpe bila?

www.reaj.com

Gazte Aterpetheen Sarea

Irungo euskaltegiak

✓ **UDAL EUSKALTEGIA.** Izen-ematea: Irailaren 9tik 17ra. Ordutegia: 8:30-14:30.

✓ **HERRI-JAKINTZA** euskaltegia: Izen-ematea: Irailaren 1etik 24ra. Ordutegia: 11:00-13:00 eta 17:00-19:00.

✓ **AEK EUSKALTEGIA:** Izen-ematea: Irailaren 6tik 24ra. Ordutegia: 9:30-13:30 eta 16:00-20:00.

Izen-ematea eta sarrera proba, euskaltegietan bertan.



Ikasle txartela

Irailaren 1etik aurrera ISIC ikasle txartela atera dezakezu 2010-11 ikasurteko matrikula aurkeztuz. 2011ko abenduaren 31ra arte beharpenak lortzeko aukera izango duzu.



Gazteriaren urtea

Nazio Batuen Erakundeak 2010eko abuztutik 2011ko abuztura Gazteriaren urtea ospatuko du. Aldi honetan antolatu diren ekintzen berri

www.irun.org/igazte



Gazte Informazio Bulegoaren
neguko ordutegia.

URRITIK aurrera:

Astelehenetik ostiralera:

11:00 - 13:30

Astelehenetik ostegunera:

17:00 - 19:30



Biltegi eta bulegoak:
Txirrita Maleo 4 - 20100 Errenteria

Denda:
San Francisco, 15 - 20002 Donostia
San Francisco, 24 - 20002 Donostia
Duque de Mandas, 45 - 20012 Donostia
Isabel II, 15 - 20011 Donostia
Plaza Aralar, 1 - 20100 Errenteria
Avda.de Ezkiaga, 1A-1B - 20200 Beasain
Leizeaga, 3 - 20570 Bergara
Salvador Etxeandia, 6 - 20304 Irun

Erka Osagai Elektrikoak S.L.
c\ Salvador Etxeandia, 6 Behea
Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48
20304 Irun



- Industriako eta etxeko instalazio elektrikoen biltegia.
- Lanpara erakusketa.